

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

746

35/2021 EBAZPENA, urtarrilaren 14koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez María Luz Marqués González andrea Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente lanpostutik kentzen duten, berak hala eskatuta.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren maiatzaren 15eko 1027/2015 Ebazpenaren bidez (2015eko ekainaren 15eko EHAAn 110. zk.), Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente izendatu zuten María Luz Marqués González andrea.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusiak hauxe,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Luz Marqués González andrea Uribe Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente lanpostutik kentzea, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2021eko urtarrilaren 17ko lanaldia bukatzean izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritzari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 14a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.